

# Hitz beste

## *Haur eta gazte liburuen kritika eta erreseinak*

### **Ortzi kamaleoia**

YONEZU, YUSUKE

Itzultzailea: AIORA JAKA

Ttartalo, Donostia, 2011

#### **Hitzak eta giltzak**

Itzi Aranbarri idazlearen liburu baten izenburua baliatuz, hona hemen haur txiki-txikiarentzako hiru liburu interesgarri.

Egileak liburu hauekin egiten du aurkezpena euskal irakurleen artean. Aldi berean, *Ortzi kamaleoia* izenburuaz gain, beste hauek ere kaleratu ditu: *Formekin jolasten* eta *5 sagar txiki*.


Kameleoiarena da koloretsuena, bitxiarena zelanbait, eta haurrei, akaso, animalia ezagun hau egingo zaie erakargarrien. Azal-hegalak ditu altxatzeko, eta biratzen diren gurpiltxoak. Ondorioz, ezusteko franko izango ditu haurrak.

Oro har, irudimen handiz egindako liburu sorta da, edizio zainduan, haurrek ez apurtzeko moduko azal gogorrek.

Hirurek dituzte kolore argiak oinarri, eta hiru ale hauetan hitzak, zenbakiak, formak eta koloreak modu ludikoan ikastea da helburu nagusia. Baina, horretarako, igarkizunak asmatu beharko dira. Beraz, guztiak dira liburu dibertigarriak, hiruretan dago jolas atseginen bat.

Irudigile japoniarra ezezaguna zaigu Espainiako merkatuan, beste libururik ez baitugu ikusi oraindik. Soilik dakigu diseinu ikasketak egin zituela aitak zuen zapata lantegian, ideia berriekin laguntzeko, eta ondoren egin zuela jauzi ilustrazioaren alorrera.

*Ortzi kamaleoia*-ren istorioan kameleoiak, Lili lagunaren bila ari dela, haur-literaturan arrunt diren animalia maltzurerekin egingo du topo: otsoa, sugea, krokodiloa eta abar. Baina kameleoiak egundoko dohaina du, arriskua sumatu ahala erraz kamuflatzen baita.



*5 sagar txiki* kontakizunean elefantea, dortoka, sugea, untxia eta, amaieran, har bihurria eta sagarra batuko duen tximeleta agertuko zaizkigu, tolestuta dauden orriak zabalduz gero.

*Formekin jolasten* liburuan haurrak asmatu beharko du molde ezberdinekin zer garraibide osatzen den: autoa, tren edo hegazkina, adibidez. Egitura galderen bidez osatzen da. Izan ere, adin txikiko haurrek berezko dituzte jakin-mina eta berau asetzeko galderak.

Ilustrazioak sinpleak izanik —kolorearen garrantzia azpimarratuz— testuarekin harreman dinamikoa osatzen dute, aberastu egiten dute, eta beste esangura batzuetara zabaldu.

Hobe da hiru liburu hauek heldu baten konpainian ikusten badira. Osterantzean, haurrak gehiago joko du azal-hegalak mugitzera, beste mundu batzuk deskubritzera baino.

Funtsean, jolasa eta kalitatezko estetika uztartzen dituen liburu bilduma dugu, haurrari gertuen duen ezagutza jasotzeko giltza emango diona, eta, horrekin batera, jakingura ase eta sorpresa ugari eskainiko diona.

Horrelako liburuek irakurketara bultzatzeaz gain, ikasteko bidean jartzen dute haurra, arrazoi nahikoa biblioteketan ez ezik ikastetxeetan ere izateko.

Ez da erraza ilustratzailearen eta pedagogoaren dohainak maisuki bateratzea. Yusuke Yonezuk asmatzen du.

Asun Agiriano

3+



**Zesar eta Ernestina**  
GABRIELLE VINCENT  
Timun Mas, Barcelona, 1982

### Ezinbestekoa

Oraingoan, liburu berri-berriak komentatzetik aspaldiko batera egingo dugu salto. Euskarara izenak itzultzean hartu den irizpideak apur bat nahastu gaituen arren, Zesar eta Ernestina ditugu ipuin honetako protagonista nagusiak. 80ko hamarkadan sagu maitagarria eta hartz lagunak gaztelaniaz horrela deitzen baziren ere, hizkuntza horretan egindako azken argitaraldian, *Ernesto eta Celestina* moduan berrargitaratu dira. Jatorriz, Belgikan, *Ernest et Celestine* ziren. Euskaraz berriz argitaratzeko gonbita egiten dugu hemendik, izenen kontua zuzentzeko ez ezik, haur-literaturako ezinbesteko altxorak direlako ustea ere oso zabaldua baitago.

Irakurle ugari galdetuta, haurtzaroen iltzatuta geratzen diren liburuen artean gogoratzen dituzte Zesar eta Ernestinarenak, lotura afektibo estuak oroitzen.

Argitaletxeek neurtu dezatela euskal irakurle gaztetxoek hutsune literario handia, izan ere, ipuin hauek dira urteetan zehar haur-belaunaldi ugari gozatu dituztenak. Irakurketa-esperientziaren hastapena liburu hauekin gertatu zitzaizela diote zenbait irakurle helduk, eta, nago, irakurle berriak irabaziko lirakeela berriro esku artean izateko aukera bagenu, gaurko irakurleen haur-literaturaren paisaia liburu hauekin osatzen baita.

Gabrielle Vincent-ek (Brusela, 1928-2000) Monique Martin izenarekin ere sinatu zuen; horrela gertatu zen, esaterako, *Un día, un perro* (Zendrera Zariquiey, 2004) hitzik gabeko album ilustratu interesgarrian.

Asun Agiriano

6+



**Dragoia**  
ARRATE EGAÑA  
Ilustratzailea: MARIMAR AGIRRE  
Erein, Donostia, 2011

### Kontakizun aberatsa

Pozgarria da ikustea albumak hartzen ari diren garrantzia gure haur-literaturan; eta are pozgarriagoa album horiek euskaraz sortuak direnean. Erein etxearen eskutik heldu zaigun azken horietako bat: *Dragoia*. Azaleko irudiak zerbait irudika dezake, dragoi edo horrelako pizti baten atzeko hankak eta buztana, kutxa antzeko zerbaitetik irteten. Egia esan, azalak ez du pista handirik ematen, eta barneko orrialdeetan murgildu beharko dugu istorio honen nondik norakoak ezagutzeko.

Liburuari galdera batek ematen dio hasiera: «Zer izan nahi duzu handitzen zarenean?», eta hain zuzen, galdera horri emaniko erantzuna da istorio honetako protagonista bitxia egiten duena: «—Aitonari kometak egiten lagunduko diot —erantzun nien»; ordurako irakurleak ikusi du giro txinatarreko istorio batean gaudela, protagonista, narratzailea, gertakarien berri ematen digun neskatila txinatarrak dela (eta poeta samarra ere): «Aitona lehendabizikoa izan zen herri honetara etortzen, negu amaiezineko, mendi urdineko eta euri atergabeko herrialde honetara. Eta jatetxe bat ireki zuen. Ni geroago iritsi nintzen.»

Kontua da gure protagonistari iseka egiten diotela eskolan, barre egiten dutela haren kontura, eta

aitonak «kontu horiek ez dira inportanteak» esan arren, neskatilak sufritu egiten duela. Andereñoak, gainera, adiskidetu daitezten, Lukenekin batera jarri du, eta bien artean egin behar dute etxeko animaliei buruzko lan bat; baina... «asmaoa ona zen, baina alferrikakoa. Ez genion elkarri hitzik esan, eta idazkia hasi ere ez genuen egin. Andereñoak, aski haserre, idazlana etxean burutzeko agindu zigun.»


Eta elkarri bizkarra ematen dioten bi gaztetxoek (Marimar Agirrenen irudietan ederki islatzen dira protagonisten sentimenduak eta istorioaren nondik norakoak), lan hori dela eta, aldaketa handia izango dute, eta elkarrekiko harremana oso bestelakoa bilakatuko da.

Testu eta irudien arteko tonua oso lortua da. Neska-mutilak dira informazioaren gune, eta, alde horretatik, Lukenen ama, irakaslea edo aitona agertzen direnean, ez zaie aurpegia ikusten, neska-aren eta mutikoaren sorbaldetan eskuak jarrita agertzen den andereñoaren irudia lepoan moztzen da... eta irakurleak irudika dezake, arazorik gabe, gainerakoa; horrela, arreta eta interesa, batik bat, neska-mutikoengana zuzentzen da.

Istorioaren argumentua, bestalde, oso ongi garatuta dago, eta narrazioan (idazkian nahiz irudien bidezkoan) oso era ederrean azaltzen da (testuaren poetikotasuna eta irudien indarraz hitz egin dugu arestian). Arrate Egañak eta Marimar Agirrek ederki asmatu dute bien arteko lana uztartzen, testuaren eta irudiaren arteko erlazio aberatsa eskaintzen.

Norbaitek kulturartekotasunaz hitz egiteko aukera ematen duen liburua dela esan dezake, edo bullying-ari buruzkoa dela; izan daiteke adiskidetasunaz... baina argi dagoena da, liburu hau gozatzeko moduko irakurketa bat dela, literatura liburu.

Xabier Etxaniz Erle



### Nikolas

TXABI ARNAL GIL

Ilustratzailea: PATXI GALLEGO

Giltza, Bilbo, 2012

### Usteak ustel

Txabi Arnal ezagun egin da azken urteotan album arloan eginiko ekarpenengatik. Espainiako hainbat argitaletxetan plazaratu izan ditu haur txikiarentzako zenbait idazlan, hainbat ilustratzaileekin batera. Oraingoa, album eta liburu ilustraturen arteko *Tren Urdina* bilduman *Nikolas* ipuina eskaini digu, Patxi Gallegorekin batera.

Liburuaren azalean bertan ikus daitekeen bezala, bi pertsonaia ditugu kontakizun honetan: istorioa kontatzen digun mutikoa, narratzaile bakarra dena kontakizunean zehar, eta Nikolas, istorio honetako benetako protagonista eta gure narratzailearen arreta, ustea eta gogoeten gunea dena. Liburu, hain zuzen, horrela hasten da, gaztetxo narratzailearen hitzekin: «Altua da, atletikoa, ebanoa bezain beltza. Ikusi nuen lehen aldi hartan, igeriketa-txapeldun afrikar bat zela pentsatu nuen». Eta igerilekuan ageri zaigun atleta horren deskribapen behar handirik ez dago Gallegoren ilustrazioak ikusita; komikiaren eragina duten irudiek mutikoaren harridura eta afrikar indartsua erakusten baitzizkigute; kontaktuzunaren hariak aurrera egin ahala, baina, afrikar igerilariaren aurpegi serio eta irmoak ikara eta segurtasunik eza adierazten duenari uzten dio lekua. Eta, apurka-apurka, hasierako ustea okerra dela erakusten duten zantzuen artean, igerilari afrikarrak eginiko galdera dugu: «Galdera hark

zalantza eragin zidan. Igeriketa-txapeldunek ez baitute galdetzen zenbateko sakonera daukan igerilekuak».

Kontalariaren eta Nikolasen artean, horixe baita afrikararen izena, harreman bitxia sortzen da. Nikolas uretatik irten bezain pronto hurbilduko zaio mutikoa, eta, lagundu nahian, aholku txiki bat eman, eta galdera bat egiten dio: «-Igerian ikasi nahi baduzu, beldurra galdu beharko diozu urari. Beldurra zer den badakizu?» eta une horretan, beldurra hitza aipatzean, mundu berri bat irekiko zaigu liburuan murgiltzen garenoi. Zer da, bada, beldurra? Zeri edo nori diogu guk beldurra? Nikolasek bi hitzetan azaltzen dio mutikoari zergatik ari den igeri ikasi nahian, azalduko dio bere herrialde-tik patera ziztrin batean zeharkatu zuela itsasoa (marrazo eta guzti, Gallegoen irudietan ageri den bezala), kontatuko dio bere herrialdean gosea eta gerra direla eta, laster hamazortzi urte beteko dituzenez, bere herrira bidaliko dutela berriro. Eta Nikolas, hona etorri behar duen hurrengo baterako ikasten ari da igerian.

Ipuin simple honek istorio asko gordetzen ditu bere baitan, eta Patxi Gallegoren irudiek ederki laguntzen dute irakurketa aberatsagoa egiten, testutik haragoko irakurketa bat egiten. Narrazioa, berriz, sinplea da, haur baten ahotsetik egina, eta inozentzia horretan gogoeta egiteko kontu asko azaltzen zaizkigu. Legeek eta agintariak markatzen dituzten mugen gainetik, pertsonen jarrera eta adiskidetasuna ditugu harresi eta muga horiek guztiak gainditzeko. Eta horren adibide argia dugu liburuko azken irudia, narratzailea eta Nikolas igerian, laguntzen bata eta ikasten bestea... lehenak utzitako betaurrekoekin.

Xabier Etxaniz Erle



**Zaldi urdin bat margotu zuen artista**  
ERIC CARLE

Itzultzailea: MANU LOPEZ GASENI  
Pamiela/Kalandraka, Iruñea, 2012

**Idazle artistak**

Liburu honekin, album ilustratuen bidean urrats bat gehiago egin da. Lehendik, Eric Carleren *Beldar gosetia* (Ikas, 2006) eta *Gose handiko beldarra* (Kalandraka, 2007) 1969an idatzitako istorio ezagunaren bi edizio genituen arren, oraingoan, *Zaldi urdin bat margotu zuen artista* jaso dugu, ekarpen txalogarria inondik ere.

Eric Carlek (New York, 1929) guraso alemaniarrik zituen, eta bertan hazi eta ezagutu zuen espresionismoaren aitzindaria izan zen Franz Marc-en *Zaldi urdina* obra. Garai hartan, nazien erregimenak artista espresionisten eta abstraktuen margolanak debekatu zituen, «degeneratuak» zirelakoan. Baina, hara non, Carlek artista izatea erabaki zuen margolan horren eraginari esker. Egun, oraindik ere, hainbat belaunalditako haurrak liluratzen ditu, eta haren liburuak eskola askotan erabiltzen dira, inspirazio artistiko eta sorkuntza jarduerak lantzeko.

Oinarri autobiografikoa du liburuak: *Ni artista naiz eta margotzen ditut*... dio lehenengo esaldiak. Margolari alemanari egindako omenaldia da, baina, era berean, Carlek 70 album baino gehiagoren egile izanik, bereizgarri zaion estilo batez jarduteko harrotasuna erakusten du, irudimena ez ezik, sormen-askatasuna ere aldarrikatzen du.

Artearen ikuspegitik abiatuz gero, liburu honek

oso prozesu interesgarria aurkezten du, begirada berri bat. Margolan ezagun bat jaso eta berreraikitzen du. Dekonstrukzio prozesu batetik sortutako artelan liburuak dugu, natura eta animaliak perspektiba berri batetik behatzen laguntzen diguna: *zaldi urdin bat, behi hori bat, untxi arrosa bat*... margotuta ikustea dibertigarria da haurrentzat. Irudimenari egindako oparia.

Teknika aldetik, testura eta zetazko paper zatiak nahastuz, eta, gainean, argizarizko margoak erabiliz, irudi distiratsu eta indartsuak sortzen ditu, narrazioak bailiran. Forma eta kolore xaloen edertasunaz gozatu ahalko dugu.

Nahiz eta lehen begirada batean Eric Carleren liburuak inozoak diruditen, erraz ulertzekoak, egilearen estilo propio horrek aldaketa sakona ekarri zuen.

Samur identifikatzen dira beste edozein ilustratzailek egindakoen artean; eta esan behar da, egile ospetsu bihurturik, museoa ere baduela, Massachusetts-en, alegia, eta berak sortutako irudiekin «merchandising» aukera zabala dagoela munduan zehar.


Edizioa bikaina da, eta eskertzekoa da album ilustratuek argialetxearengandik jasotzen duten begirunea. Iruditzen zait, oro har, gaur egun, euskaraz zer edo zer gutxiago kaleratzen den arren, liburuaren hautuan zorrotzago jokatzeko delako, zenbaitzuk *fin* ari direla, Carlek azken orrian erabiltzen duen esaldiak diogen bezala.

Halaber, interesgarriak dira liburu amaierako oharra: Franz Marc eta Eric Carleren biografia laburrak, artearen historian zenbait gertaera ulertzeko argibideak ematen baitituzte.

Azkenik, egilearen hitz batzuk ekarri nahi nituzke: «*Nire liburu gehienek bitartez etxearen eta eskolaren arteko zubi lana egin nahi dut. Etxetik eskolara joan beharra haurtzararen bigarren traumarik handiena da; lehena jaiotzea da. Bi kasuetan babes eta epeltasun toki bat uzten dugu toki ezezagun batera joateko. Uste dut haurrak sortzaileak eta ikasteko gauza direla berez. Nire liburuetan aipatutako beldur hari eusten saiatzen naiz, eta haren ordez, mezu positibo bat igortzen. Erakutsi nahi diet ikastea liluragarria eta jostagarria dela.*»

Horixe bera eta gehiago, zintzilikatzeko artelan bat ere eskuratuko baitugu liburu honekin.

Asun Agiriano



**Mitxitxi Marriau**  
BEGOÑA DURRUTY  
Erein, Donostia, 2011

**Ama(orde) gaiztoak**

Erein argialetxeak aspaldian ez digu eskaini jatorrizko istorio euskaldunak biltzen duen album ilustraturik. Hamar bat urte badira Joxe Arratibelen tradiziozko kontakizunak bildu, Patxi Zubizarretak testuak moldatu eta *Urrezko Giltza* bilduma sortu zutela ipuin gogoangarri haiekin: *Sorgina eta emakume ederra*—Alvaro Matxinbarrenaren ilustrazioekin—, *Txomin Ipurdi*—Antton Olariagaren marrazkiekin— eta Jon Zabaletaren koloreekin eskaini ziguten beste hura *Etsai zaharra eta mendiko lehoia*. Zorionekoak ginatete esku artean dugun *Mitxitxi marriau* liburuak haien guztien jarraipena balitz, eskertu behar baitzaio argialetxeari tradizioaren gaurkotze-lanak ausardiaz kaleratzeko kementa.

Oraingoan, Aita Donostiak 1951. urtean Baztan aldean ahozko tradizioetik jaso eta Jose Mari Satrustegik ezagutzera eman zuen haur-leloa oinarri hartuta egindako kontakizuna dugu. Haurra altzoan jarri, haren eskutxoak hartu eta hitz hauen eritmoan aurpegia ferekatzen zaio. Horrela azaltzen digu egileak liburuaren kontrazalean. Nago garrantzi handikoak direla ohar hauek ipuin harrigarri honen esanahia eta nondik norakoak irakurleei ulertarazteko.

*Mitxitxi marriau* ipuinak balio sinboliko handi eta indartsuak ditu. Herri-ipuinak sortzez ez dira haurrentzat, gehiago dira gizakien portaera ezku-

tuak azaltzeko irudiak. Ipuina ulertzeak norberaren jokabidea ulertzea dakar. Ipuin honek, halere, haurrari ahaztezina egingo zaion ezkutuko mezu du. Kasu honetan, ama edo amaorde gaiztoaren arketipoa erakusten da, ama guztietan bat egiten baitu amak eta amaordeak.

Protagonistak Pello eta Poxpolin Txuri neskatoa dira. Amagandik agindua jasoko dute basoan adarrak biltzeko eta, froga gainditzen badute, trukean, opil goxoa izango dute. Haurrek garapen-bidea izango den froga trebetasunez gaindituko dute, eta mutil eta neskaxa heldu bihurtuko dira. Bidean, bakardadea eta sufrimendua ezagutuko dute, anai-arreben arteko maitasuna eta elkartasuna ere biziko dute, eta, bukaeran, «berpiztu» egingo dira. Ipuinaren amaieran konturatuko gara gorputza bera ere aldatu egin zaiela, («puskatu» azaltzen da ipuinaren narrazioan), eta baita amaren papera ere zein den: ama maitatua eta gorrotatua aldi berean. Amak berarekin darabina bi aldeko txanpona, sorgin gaiztoa eta maitagarria, estimua eta susmoa. Aita, berriz, estimua eta susmoaren artean nahastuta ikusiko dugu, ezertaz jabetu gabe, azkeneko orriko amaieran antzematen den moduan.

Esan ohi da zenbait ipuin herrikoik haurren garapen emozionalerako krudelak izan daitezkeela eta umeen bortizkeria areagotu dezaketela. Baina ipuinek ez dute zertan atseginak izan, nahiz eta gurasoek pentsatu haurrek eguneroko errealitate gozo eta gauzen alde onak soilik ikusi behar dituztela. Bruno Bettelheim psikoaanalista eta ipuin-ikerlari ezagunak dioenez, «alde bakarreko mundu honek alde bakarra erakusten dio adimenari, eta bizitza, berriz, ez da beti pozgarria».

Ilustrazioen estilo pertsonala, Durruty-rena. Oinarrizko lau kolore erabiliz —gorria, beltza, zuria eta grisa— eta trazu finez pertsonaien siluetak marraztuz, jite modernoa duten irudiak sortu ditu. Durrutyren lana lehendik ere ezaguna genuen, adibidez, Elizondoko liburutegian dituen marrazkiei esker edota bi aldiz *Marrazioak* egitasmoan partaide izan delako, ilustrazioa eta autoedizioa bultzatzeko Galtzagorri elkartearen barnean sortutako proiektuan, alegia.

Herri-literatura gustuko izan edo psikologia kontuak atsegin dituenari egingo zaio erakargarria Durrutyk, errespetu handiz, irakurlearen begietara ekarri dugun kontakizuna.

Asun Agiriano



**Euria ari duenean**  
LEIRE SALABERRIA  
Pamiela-Kalandraka, Iruñea, 2011

Hauxe dugu Leire Salaberriaren lehen liburua, eta alde horretatik pozgarria da Nafarroatik datorrigun *Ettxepare* lehiaketak bide ematea euskal letren eta irudien panoraman sortzaile berriak plazaratzeko; literatura-lehiaketek, hain zuzen, ibilbideak saritzeaz gain, balio behar baitute izen berriak, sortzaile hasi berriak plazaratzeko.

*Euria ari duenean* hitz horiekin, edo ideia horretatik, abiatzen da kontakizun labur hau. Leire Salaberriak euria ari duenean egiten dituen ekintzak adierazten dizkigu, zer gustatzen zaion, zer egiten duen, nola jokatzeko duen... zergatik duen gogoko euria, alegia. Eta ideia hori oso modu sinplean adierazten zaigu, testu aldetik ideia argiak eta tinkoak esanez: «Gelako lagunekin batera, putzuetan egiten dut arrantzan eskolatik irtetea. Koloretako arrainak harrapatzen ditugu, guk bakarrik ikusten ditugun horietakoak, magikoak»; baina sinpletasun hori, testuaz gain, irudietan ere ageri zaigu. Collage modukoak, perspektiba faltsuak, sinbolismo handiz... irudiek haurren mundura, haurren ikuspegietara hurbiltzen gaituzte, Salaberriak idazkera ez ezik ilustrazioa ere haurren tonuarekin bat eginez sortu baitu. Hots, istorioa kontatzen digun bezala, neskaxa horrek berak irudikatzen dituela narrazioarekin datozen irudiak.

*Euria ari duenean* liburuan eguneroko sinpletasuna ageri zaigu, nola lor dezakegun zoriontasuna, ongi pasatzea, ondo egotea, egoera sinple batean, euria ari duenean paseatuz, txakurarekin ibiliz, euritakopean egonez, amets gozoak eginez edo, arestian ikusi dugun bezala putzuetako arrain

imaginarioak arrantzatzen. Narratzaile den neskaxaren ikuspuntu horretan, hala ere, ageri dira euriarekin edo euria ari duenean disfrutatzen ez duenik ere: «euria ez dute denek gogoko. Arratoiak kexu izaten dira estoldak urez betetzen baitzaizkie. Katuak ez dira urrun ibiltzen egun euritsuetan, nahiz eta ura gustuko ez izan (...). Nire ahizpa zaharrena haserretu egiten da ilea erratzaren moduan geratzen zaiolako», baina narratzaileak argi eta garbi du: «Gustuko dut euria ari duenean, nahiz eta helduei ez atsegin. Dibertigarria da benetan!»

Album honetan biltzen diren ideiak, erabiltzen den estetika (sinple itxura duena, haurren ikuspegi puntutik egina), ideien argitasuna eta osaketa (lehen aldiz *Ettxepare* sarietan, eta hau da V. saria, pertsona berak egin ditu irudiak eta testua), eta irakurlearekin lortzen den identifikazioa direla eta, liburu eder baten aurrean gaudela esan daiteke; haurren gozamenerako eta helduon gogoetarako liburu itxuraz sinple baina ongi landua.

Xabier Etxaniz Erle



**Neu naiz azkarrena**  
MARIO RAMOS  
Itzultzailea: Aiztiri itzulpen zerbitzuak  
Tarttalo, Donostia, 2011

#### Otso umoretsua

Mario Ramos (Bruselas, 1958) egilearen eskutik otso xelebreak, dibertigarriak eta umoretsuak ezagutzen gabiltza. Lehenengo indartsuena izan zen (Tarttalo, 2006); gero, ederrena (Tarttalo, 2008); eta, orain, azkarrena aurkezten digu.

Otsoa eta Txano Gorritxo aski ezagunak dira haur txikien artean; amonaren etxean otordu ederra egingo duen kontua ere ohikoa da, baina otsoa amonaren kamisoi arrosaz jantzi eta basoan zehar galduta ikustea egoera berria da irakurleentzat, eta hortik suertatuko diren enkontruak eta gaizkiulertuak guztiz barregarriak. Ez zaio otsoari bere asmoak betetzea erraza egingo! Ez horixe!

Beldurra eta irribarrea tartekatzen maisua da Mario Ramos. Liburuetan beti eskaintzen digu ikuspuntu berriren bat; hiruko honetan, umorearen bitartez, ipuin klasikoekin koska bat estuago eginez. Basoan otsoa pertsonaia ezagunekin elkartzeko da, ehiztari inozoa, hartz familia, hiru txerrikumeak, zazpi ipotxak eta abar. Guztietan ere, errepikapenaren bidez, egoera sinple eta ezagunak erabiliz, egileak irakurlearen konplizitatea bilatzen du, egoera xelebreak ipuinetan zehar txertatuz, irribarrea ezpainenat jartzea helburu.

Irakurlea otsoarekin identifikatuta sentituko da, izan ere, nork ez du noizbait pentsatu ederrena edo

azkarrena denik? Horrela izanik ere, kontakizunean otsoa ez da ez azkarrena ez ederrena izango, gertatzen zaizkion pasadizoen ondorioz, irragarri bilakatuko baita. Idazle eta ilustratzaileak irakurlea bidaide argizatzen du, eta berak ere, haurrekin batera, barre gustura egiten du. Horregatik dira Mario Ramosen ipuinak dibertigarriak, ez dituelako ipuin klasikoak serio hartzen, ikuspuntu umoretsuaren estrategia eskaintzen digu eta lehendik ezaguna genuena aldatu. Horixe da umorearen boterea, hau da, arauak hankaz gora jartzeko gaitasuna, eta hori umeez izugarri atsegin dute: helduon ordena eta bertsio ofiziala aldatzea, sabotaje txikiak gauzatzea.

Ipuinotan otsoak biziak eta oso adierazgarriak dira, zertzelada sendo eta irmoz marraztutakoak. Mario Ramosen erakusten dizkigun otsoek beldurra ere ematen dute, baina autoreak ipuin klasikoaren aurrean erlatibismo alai azaltzen du, eta hori da, hain zuzen ere, haur-literaturaren munduan egile honek duen indarra. Liburu aipagarri gehiago ere baditu, *Hiru txerrien txerrikeriak*, adibidez, eta are gehiago euskaratu gabe.

Klasikoetatik edaten duen ipuin hau kontatu baino lehen, hobe da haurrek jatorrizko bertsoia ezagutzeko, bestela nahasmena sor daiteke, eta, barrea sortu beharrean, korapiloa eragin lezake. Umeez ez dute umorea harrapatuko, eta helduak iruzurra egin diela sentituko du. Bost urtetik aurrerakoentzat izan daiteke gomendagarria, orduan, ezohiko egoera zentzugabeak ikusten dituztenean, barre egiten baitute.

Helduoi begira, «barre egiteak –dio Umberto Eco– pertsona egiten gaitu, txantxetan egiten dakien espezie bakarra gara, horrexek libratzen gaitu heriotzaren ideia jasanezinetik».

Victor Hugok, berriz, zioen «barreak negua aurpegitik uxatzen digula».

Izan ere, umorea proposamen serioa da.

Asun Agiriano



**Txori txorria**  
JUAN KRUIZ IGERABIDE  
Ilustratzailea: MAITE GURRUTXAGA  
Alberdania, Irun, 2011

#### Garenak garela

Ez dakit zer pentsatuko duten idazleek, baina badakit batzuei zaila egiten zaiela haurren liburuak idaztea; beste batzuek haur kontakizunak idazteari samur ekiten diote, atsedendia hartzeko edo burua entretenitzeko delako usteari jarraituz. Irakurlea naiz, eta haur-literatura dut atsegin, alegia, ilustrazioak dituzten liburuak aukeratu eta giro ludikoan murgiltzeko lagungarria egiten zait haur-literatura. Gustuko jakiekin bezala, ondo aukeratzeko da gako, edizioa ona eta zaindua izan dadila, baina horregatik, ez diezaiogun bakarrik itxurari erreparatu.

Alberdaniako *Osinberde* bilduman bi liburu berri kaleratu dituzte berriki, biak Maite Gurrutxagaren marrazki fin eta bitxiak jantzirik, kanpoko azaletik bertatik dotorezia nabarmena eta, barruan, bi idazle ezagunen hitzekin batera, ilustratzaile gazte honen zuri-beltzeko ukitu dotoreak.

Bien artean, Juan Kruz Igerabideren *Txori txorria* aukeratu dut autoreak haur-literaturan egindako lan zabalagatik, nahiz eta askotan aintzat ez hartutako idazlea izan. Hainbat eta hainbat haur-ipuin, eleberri, itzulpen egindakoa, eta, gainera, hizlari aparta dugu Igerabide, haur-literatura eta hizkuntza afektiboaren arteko lotura islatzen trebea.

Liburu honetan txoriak dira protagonista, baskoan jaiotako okil baten istorioa dugu. Mokoak *tok-tok-tok* egiten duen moduan, erritmo eta musika bereziko liburua da, hots eta soinua handikoa.

Burua arrautzatik ateratu orduko, txori itxusia jaiotzen zaiela konturatu dira gurasoak eta neba-arrebak, moko okerra eta hanka baldarrak dituenak. Okilak laster hasten dira euren erara ibiltzen, eta janari eta lagun bila ateratzen. Familiako beste txoriekin gertatzen ez dena, zurgin izateko ere balio ez duenez, okil txikia arbuia egingo dute. Hasi eta indartu arte, urretxindorren konpainia izango du okil gajoak, baina familian ez da giro, egurra tailatzen zaletu da okil protagonista, eta eskultura bitxiak egiten ditu moko oker eta guzti, neba-arreben iseka eta erasoaren artean. Azkenean, beldurrak uxatu eta beste baso batera ihes egiteko adorea bilduko du. Bidaia luze horretan ezagutuko dituen izakiak eta toki berriak bizitzan ikasten lagunduko diote, bakardadea eta zoriontasuna zer diren ezagutuko ditu, gizakien artean moldatzen eta irudimena zorrotzen ikasiko du, amaieran artista osoa izan eta bere burua ondo ezagutu arte.

Liburuak tristura edo malenkonia puntua du, baina gozamenak irakurtzea. Egoerak horren dira gertukoak, ezen aurrera jarraitzeko irrika bizian uzten baitzaituzte. Berehala ohartuko da irakurle heldua alegia moral baten aurrean dagoela, izan ere, ekintza ñimiñoetatik gizakien psikologia biluztuko du idazleak, gaizkiaren eta ongiaren kontzeptuak arriskutsu bezain subjektiboak direla erakusteko.

Elkarren segidan kateatzen dira gertaerak, maisuki harilkatuta dagoen istorioaren norabidean. Akzioa ez da garrantzitsuena, nahiz eta okilaren bidaia inizatikoak abenturaren osagarriak dituen. Garrantzitsua da azpimarratzea irakurle jabetu egingo dela gertaera eta gogoetaren arteko loturaz, osagai guztiak elkarlotzen baitira.

Era berean, irakurlearen esku uzten du idazleak arbuigarriak diren zenbait jokabide, okilenak gureak ere badirela hausnartzeko bidea zabalduz. Juan Kruzen alde idealista edo humanistarena dugu kontakizunaren barnean, baina poeta ere badela argi erakusten du, irudien pisua adierazkorra baita. Poesiaren baliabide narratiboak funtsezkoak dira narrazioan, salaketa eta barne-gogoeta euren artean. Igerabide narrazio-egile

oparatu da, baina, denek gaitetik, poeta handia. Hunkidura sortzeko inor gutxi duen ahalmena du J.K. Igerabidek, eta kontaktatzen duen hori bizi eta biziarazteko ahalmena du.

Txori txoroa kontakizunak gogoeta eragiten du gogo-gogo, esaten ez dena irakurtzen dena baino askoz gehiago baita.

Asun Agiriano



### Zeraldaren erraldoia

TOMI UNGERER

Ilustratzailea: TOMI UNGERER

Itzultzailea: ITXARO BORDA

Ikas, Baiona, 2011

### Haur-jale onarena

1970ean argitaratutako liburua hau jarri du gure eskuetan iparraldeko IKAS pedagogia-zerbitzuak. Tomi Ungerer idazle eta ilustratzaile ezaguna da haur-literaturan; nazioartean izen handia duen egile honek euskaraz ere baditu zenbait lan, *Bidelapurak* ezaguna tartean. Oraingo lan hau hura baino zaharragoa izanik, iazko urte amaieran iritsi zitzaigun Itxaro Bordak euskaratuta.

Argumentua oso sinplea da, eta *Bidelapurak* haren antza ere sumatuko du batek baino gehiagok. Istorioaren bi protagonista nagusiak haur-jale bat eta Zeralda izeneko neskatza ditugu. Eta Xerezadek zenbait mende lehenago egin bezala, beste neskatza honek salbatu egingo ditu herriko gainerako haurrak.

Haur-jalea herrira jaisten zen bakoitzean, haurren bat hartu eta etxera eramaten zuen jateko. Herrian, baina, haur guztiak ezkutuan bizi ziren, kalera irten ezinik haur-jalearen beldur. Baina herriatik kanpo, baserri batean, bazen neskatza bat haur-jalearen berri ez zuena, Zeralda. Aitarekin bizi zen, eta txikitatik gustatzen zitzaion sukaldean aritzea.

Egun batean, aita gaixorik zelarrik, Zeralda azokararantz abiatu zen gurdia saltzeko elikagaiez


beterik. Bidean, baina, haur-jalea zuen zain, harrapatu eta jateko prest.

Haur-jalearen eta neskatxaren arteko topaketa, aldiz, ez da aurreikus zitekeen bezalako; patuak edo zorteak edo auskalo zerk oso egoera aldrebe-sean eta berezian jarri zituen protagonista biak, eta handik aurrera beraien bizitza ez ezik herriko haur guztiena ere aldatu zen.

Amaitera zorientzua duen liburua dugu; adiskidetasunari eta maitasunari buruzko lana; eta albumetan ohikoa den bezala, irudiaren eta testuaren arteko irakurketa aberatsa eskaintzen duen obra. Alde horretatik, oso egokia izan daiteke talde txiki bati, edo haur bati kontatzeko irudiak ikusten dituen bitartean (eta gero berak nahi beste aldiz «berrirakur» dezan); aproposa irudietan ageri diren milaka xehetasun, kontutxo, aurpegiera . . . interpretatzeko eta komentatzeko. Izan ere, liburuko protagonista gaiztoak, haur-jaleak, beldurra ematen badu ere hasieran, ez da horrela gertatzen istorioaren argumentu guztia ezagutu ondoren.

Alde horretatik, irakurketa ugari eginez disfrutatzeke liburua dugu *Zeraldaren erraldoia*. Zailtasun txiki bat du, ordea: darabilen lexikoan, zenbait hitz («burtzoroak», «fartzak», «aztal», esaterako) nahiko ezezagunak zaizkigu hegoaldekooi. Baina horrek inondik ere ez du eragozten liburuaren irakurketa, eta Zeraldaren eta erraldoiaren istorioarekin disfrutatzea.

Xabier Etxaniz Erle



### *Indianoa*

Gidoilaria: GREGORIO MURO

Ilustratzailea: FRANCISCO FRUCTUOSO

*Alberdania, Erein, Igela, 2011*

### Abenturazko istorioa

Duela 26 urte argitaraturiko komikiaren berrargitalpena dugu liburu hau. Mixel Muruak testuaren egokitzapena egin du, eta Galtzagorri Elkartek Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin batera bultzaturiko «Klis-klasikoak» sailaren barruan argitaratu da.

«Abrite portas klis-klas», Arratibelen ipuine-tako esamolde hartatik abiatuta «Klis-klasikoak» izena duen bilduma honetan euskarazko haur eta gazte literaturaren kanon bat sortu nahi da, gurean klasikoak, gure literaturako obra esanguratsuak plazan izateko asmoz sorturiko bilduma. Egungo merkatuan literatura berria, nobedadeak soilik baitaude presente; eta duela urte batzuk argitaratutako kalitatezko liburu asko eta asko erdi galduak dauzkagu. Alde horretatik, pozgarria da «Klis-klasikoak» sail honek egindako lana kalitatezko lan horiek berreskuratzeko; eta gainera, ohiko topikoetatik at, plazaratu dituzten lehen lau aleetan oso liburu ezberdinak aurki ditzakegu: ipuin bat, haur folkloretik abiatutako testu laburren bilduma, nazioarteko ipuin klasiko baten itzulpena eta komiki bat. Azken hori dugu, hain zuzen, *Indianoa* lana.

Komiki hau XIX. mendearen erdi aldean dago kokatuta (1849ko urrian abiatzen da istorioa, San Franciscorantz doan itsasontzi batean) eta Kaliforniara doazen bi euskaldunen kontaketa dugu. Hasieratik bertatik abentura kutsua duen bidaia dela nabari dezakegu; itsasontzia lehorreratzean bertan hasten baitira gure bi lagunak abenturak: barkuan bertan eraso eta preso hartzen dituzte, lehorreratzean salaketa faltsua leporatu, ondoren traizioa jasan . . . Juliok eta Bernardok hamaika abentura bizi dituzte azken honen anaiaren bat egin aurretik. Mendebaldeko istorioen kate bat dugu liburu hau: lapurrak, ganaduzaleak, urre-bilatzaileak eta beste hamaika pertsonaia agertzen dira di-da batean irakurtzen den liburu honetan.

Euskal irakurleak, gainera, gure arbasoek Ameriketara egindakoen berri ere ikus dezake. Zer-nolako lanak, ohiturak, eguneroko borroak eta zailtasunak izan zituzten aurrera egin ahal izateko. Alde horretatik, abenturazko komiki honek ere badu gure nortasunaren eta gure historiaren berri.

Liburuaren hitzaurrean adierazten ditu Murok liburu hau hobeto ezagutzeko hainbat pista. Hor dago, esaterako, R. L. Stevensonen eragina, Mendebal Urrunari buruzko filmak, baina baita, arestian aipatu bezala, euskal ukitua: egilearen familiaren historia, hain zuzen (nahiz eta azken hori, batik bat *Justin Hiriart* komiki-ale zoragarri-rietan ageri).

Zalantzarik gabe, *Indianoa* gure literaturako perla bat da; lehendik ezagutzen genuenok berriro gozatzeko aukera izan dugun bezala, irakurle berriek esku artean izateko moduko liburu zoragarria.

Xabier Etxaniz Erle





**Errepidea**  
MIREN AGUR MEABE  
Ilustrazioak: AITZIBER ALONSO  
Erein, Donostia, 2010

### Karabana bati jarraika

2010eko Durangoko azoka garaian argitaratu zen Miren Agur Meaberen ipuin hau, eta bertako nobedadeen artean zarata handirik gabe igaro zen (beste lan on askori gertatzen zaien bezala). Rigel neskatoa eta haren amaren bizimodua kontatzen zaigu ipuin honetan, edo, kontatu baino gehiago, bere bizimodura hurbiltzen gaitu ipuinak. Emakumezko bi horien bizitza ez baita erraza, ez bizitzeko ez kontatzeko; eta azken lan horretan, istorioa kontatzeko lanean, hegazti batzuek laguntzen digute: kardantxiloak, hegaberak, hontzak, beletzarrak eta lertxunek. Horiek guztiak beren ikuspuntutik osatzen baitute Rigelek kontatzen duen istorioa.

«Zaplaztekoak malko bi atera dizkit. Bi. Bi zehazki. Ohituta nago negarrari eusten. baina gaur ustekabeen harrapatu nau amak, blaust! Eta tanta bi atera zaizkit, sorpresagatik, ez minagatik. Mina ondo jasaten dut. Bi malko isuri, eta kitto. Ez dut txintik esan. Gero lanera joan da ama.» Horiek ditugu Rigelen lehen hitzak, bere burua eta egoera aurkezteko modua, eta irakurleak lehen lerro horietatik nabari du neskaren bizitza ez dela samurra. Aita gabe, amarekin bizi den neskaren

12 +

bizitza dugu, eta sarri alde batetik bestera, karabana batean bizi direnena.

Rigelen eguneroko bizimodua ezagutuko dugu, zer egiten duen, amarekin duen harremana, eta harreman horretan bada ipuinaren amaieran argitzen den gako bat: aitaren hutsunea, zergatik eta nola hil zen Rigelen aita. Baina bitartean, hondartza ondoko karabanan bizi diren bi pertsona hauen eguneroko egoera larria ezagutuko dugu, amak, batzuetan, gizonak nola ekartzen dituen karabana diru pixka bat irabaztearren, Rigelek eskolan dituen arazoak, nola ihes egiten duen eta kamioilari batek bortxatu nahi duen... eta amaieran itxaropen txiki bat, amaren eta alabaren arteko adiskidetzea, etorkizunari bion artean aurre egiteko asmoa.


Argumentua, ikusi ahal izan denez, sendoa da, pentsarazteko modukoa. Gure inguruan larri bizi diren eta ikusten ez ditugun horiei erreparatzeko modukoa. Baina, horrez gain, Meabek idazkera oso landua erakutsi du ipuin honetan, gertakariak kontatzeko orduan; natura, astrologia eta poesiarren elementuak erabili ditu. Esaldi laburrak dira, tinkoak, gertakariaren eta pentsamenduen deskribapenak: «Haizeak ahotsa omen du. Nik esango nuke haizea idazluma bat dela. Hara zergatik.

Badihardut hondartzan neure tresnak jasotzen, karramarrotan egin eta gero. Arrantzarako amuzki gisa erabiltzen ditut karramarroak, izkirak eta halakoak.

Ez naiz arrantzale eskasa. Zarbasta pare bat harrapatu nuen lehengo batean».

Kontatzen duenagatik, eta kontatzen duen eragatik (Rigelekin batera hegaztiak narratzaile, idazkera tinko eta zaindua...) ez da ohiko lana Meabek idatzi eta Aitziber Alonsok koloretan ilustraturiko *Errepidea* izeneko ipuin hau; Rigelen istorioa gogorra eta hunkigarria zaigu, une on eta txarrak erakusten dizkiguna, baina horren guztiaren gainetik istorio ederra dugu, ongi kontatua eta barnea hunkitzen zaituzten horietakoa. Irakurlearen baitan sentimendu-nahasketa izango dugu, baita itxaropenari deia ere, bizitzak aurrera darraielako, lertxunek ipuinaren azken esaldian esan bezala: «Gu hegan goaz, errepide gainean, karabana bati jarraika».

Xabier Etxaniz Erle



**Katti beti endredatzen**  
ANTXIÑE MENDIZABAL  
Ilustratzailea: PATXI GALLEGO  
Elkar, Donostia, 2011

### Mundua nire kontra

Euskal idazle ezagun batek aipatzen zuen zein garrantzitsua den umorea haurrentzako liburuetan, eta aitortu behar da gai serioei buruz ere hitz egin daitekeela umoretik. Horrelakoxea dugu liburu hau, gaur egungo familia baten gorabeherei buruzko ipuina idatzi baitu Antxiñe Mendizabalek; langabeziaren mamu erraldoia presente egonik, familia barneko egoera desorekatua, haserreak, gaizki-ulertuak eta kasketak sorrarazten dituen giroa izanik, idazleak —eta ilustratzaileak, komikiaren eragina duten irudien bidez— lortu du irakurlearengan irribarrea plazaratzea.

Istorioren narratzailea protagonista nagusia dugu, Katti, bi anai-arreba biki txiki dituen neskatoa; eta hasieratik ikusi ahal izango dugun bezala, narrazioa zuzena da, hitz gutxitan, deskribapen gehiegirik gabe, egoeren nondik norakoak azaltzen, irudi eta testuaren bidez. «Ez zaizkit porru-patatak gustatzen» izenburua du liburuko lehen atalak, eta lerroetan barneratu ahala ikusiko dugu izenburu horren ostein haserre, amaren eta alabaren arteko talka egon dela: «Nire gelan itxita, aita eta ama entzuten ditut hizketan, niri buruz; ama buila batean eta aita nekatu antzean». Porru-patatak daude jateko eta Katti gelan entzerratu da mahaitik platera kendu arte. «Bera burugogorra bada, ni gehiago» dio amak,


eta horrelaxe, tentsio-giro horretatik abiatzen da Kattiren kontakizuna.

Irakurleak ikusiko du neskatoaren ikuspegia oso bitxia dela, «Ez zait eskola gustatzen», «Ingelesko andereñoak begitan hartuta nauka», «Manexek saldu egin nau»... hots, munduaren kontra ari den edo mundua bere kontra duen neskatoa dugu Katti, eta bera, egoera larri horren erdian, etxeko arazoak konpondu nahian (lanean hasteko prest baitago umezain gure neskatoa).

Gertakariak, baina, ez dira inoiz ateratzen norberak uste bezala, eta ipuinak ere ez dira irakurleak uste bezala amaitzen. Horregatik kontu batzuk nahastu egingo dira (are gehiago, esan beharko genuke) eta beste batzuk konpondu (lagunenganako harremana, esaterako), eta horren guztiaren ondorioz, amaiera harrigarri eta biribila eskaini digu Mendizabalek, hori bai, Kattiren porru-patatak pure eginda («ez zara konturatu ere egingo»).

Hari narratibo nagusi bati jarraika, idazleak Kattiren eguneroko paisaia barneratzen gaitu, etxean, eskolan, lagunekin, autobusean, igerilekuan... eta azkenik, umezain; gertaerak elkarrekin loturik ageri dira, eta, arestian ikusi bezala, hasierako kontuak edo eztabaidak ematen dio amaiera (gertakarien ondoren pertsoniak garatuak dira) modu ezberdin batean. Estiloan, gainera, narrazio bizia dugu; Kattiren ikuspegitik ederki kontatua eta deskribapenetan gehiegi luzatu gabe, elkarrizketa arin eta bizien ondorioz hainbat kontu iradokitzen dira, esan gabe ere elkar uler baitezakete lagunak; eta guk gehiagoren beharrik gabe ere, ederki uler baitezakegu nolakoa den Katti, zer gertatzen zaion, zer pentsatzen duen... eta zein gogorra den haur batentzat haurra izatea!

Xabier Etxaniz Erle



**Scott Barberenaren bizitzako lehen pausoak**

PAKO ARISTI

Ilustratzailea: JOSE LUIS ZUMETA

Elkar, Donostia, 2011

**Lehen pausoak**

Gutziz bitxia da Pako Aristi eta Jose Luis Zumetaren artean eginiko lan hau. Aristi idazle ezaguna dugu, eta aurrerago komentatuko dugun bezala, idazkera ezberdina erabili du ipuin honetan; Zumetarentzat, aldiz, hau da haurrentzako liburu bat ilustratzen duen lehen aldia, eta haren pintore ibilbide luze eta propioaren zигilua nabari da haur-literaturako liburu honetan.

Scott Barberena dugu ipuin honetako protagonista nagusia, eta irakurleak ikusi ahal izango duen moduan, hasiera-hasieratik ageriko zaizkigu beste protagonista batzuk Scottekin batera, lehena, esaterako, erlojua; bion arteko elkarrizketak ematen dio hasiera ipuinari *Erlojuaren ametsa* izenburua duen lehen kapituluak; eta arestian aipaturiko elkarrizketa horrez gain poema bat aurki dezakegu kapitulu amaieran: «Txarra nintzen musikan/ Konpasa galtzen nuen sarritan./ Orduetan opera jo behar da. / Ordu erdietan euskal baladak./ Beethoven, Mozart, Txaikovski, / Laboa, Markez eta Lertxundi./ Rocka gustatzen zitzaidan./ Geroztik zenbat damutu zaidan!» (12. or.). Eta hain zuzen, lehen kapitulu horretan nabari ditzakegu idazkera eta tematika aldetik liburu honek dituen ezaugarri

berezietako batzuk: fantasia eta errealtatearen arteko nahasketa, objektuek personalitate eta nortasun propioa dute; elkarrizketak dira nagusi, kontaketa erritimoa gertakari puntual askorekin osatzen da, eta kontaketa horretan zati poetikoak tartekatzen dira, testuaren arintasunari ideia, pentsamendu edo sentimenduen pisua kontrajartzeko.

Scotten bizitzan pertsonak dauden moduan hainbat objektu daude, lehen ikusitako erlojua, gizontxoak, bela ontzia... eta Scotték frustrazioari aurre egiteko, lagunekin batera bidaia bat presatuko du Pernambucora, aitaren bila. Izan ere, aitzak merkantzia ontziko bidaiara joan zenean ez zuen Scott agurtu, amarekin haserretuta alde egin zuen eta mutikoa beldur da ez ote den gehiago itzuliko. «Eta itzultzen ez bada?» Argumentuak, beraz, jolas, fantasia eta abenturazko kontakizun batean sartzen gaitu, eta Jose Luis Zumetaren irudiek, bai orri osokoez (edo bi orrikoek) bai txikiak eta kolore konbinaketez eginiko marrek, giro horretan murgiltzen laguntzen dute. Ez hori bakarrik, pintorearen estilo pertsonala islatzen duten irudi horietan informazio ugari agertzen baita, esan baino iradokitzen duten irudi koloretsu eta bizien bidez.

Alberto Manguel kritikari ezagunak aipatu izan du irakurleari dagokiola liburuari buruzko, irakurketari buruzko azken iritzia, eta irakurle moduan, nire kasuan, Scott Barberenaren lan hau harrigarria gertatu zait, arestian aipatu bezala, kontatzeko moduagatik eta irudiek iradokitzen eta hartzen duten indarragatik, baina baita ere istorio nahiko fantastiko honen oinarrian beste narrazio guztiz erreal bat dagoelako, irakurlea hunkitzen duen istorioa, alegia. Horregatik guztiagatik dugu liburu hau azken garaietako sorpresa atseginenetako bat. «Lehen pausoak» omen diren hauek izango ahal dute jarraipenik!

Xabier Etxaniz Erle

12 +



### Zabaleko txorimaloa

JUAN LUIS ZABALA

Ilustratzailea: MAITE GURRUTXAGA  
Elkar, Donostia, 2011

#### Adiskide bat badut

Duela hamar-hamabost bat urte argitaratu zituen Juan Luis Zabalak gazteentzako bi liburu, eta harrezkero ez du haur- eta gazteentzako lanik plazaratu 2011ko abendura arte. Kazetari lanak nahiz helduentzako nobelak eta ipuinak idatzi dituen egile honek berriro ere bisita egin dio haurren munduari. *Zabaleko txorimaloa* ipuina hurbiltzen den irakurleak hasieratik bertatik nabaritu du idazlearen afizioa, gauzak kontatzeko duen abilezia eta, zenbaitetan, poetikotasuna. Liburuko protagonista bederatzi urteko mutiko bat dugu, liburu hasieran adierazten zaigun bezala: «Hamabi pisuko eraikin bateko hamargarren pisuan bizi nintzen, amarekin, herri handi samar baten errebaleko auzoan. Auzoa ez bezala, nahiko bakartia nintzen garai hartan, bederatzi urte bete berriak nituenean».

Eta ikusi ahal izan dugun bezala lehen pertsona kontaturiko istorio honetan, lkerren gorabeherak ikusi, sentitu, bizi ahal izango ditugu. Mutiko isila eta lotsatia dugu lker, amarekin bakarrik bizi dena eta egunero eskolara bakarrik doana; eta hain zuzen bidaia hori, etxetik ikastegira eginiko bidaia, izango dugu istorio honetako eskenatoki

nagusia. lkerrek etxetik eskolarako bidean Zabale baserri ondotik pasatu behar du, eta bertan dagoen txorimaloari hitz egingo dio handik pasatzean. Poliki-poliki lagun berriari kontatuko dizkio eskolako kontuak, bere sentimenduak, nola dagoen... izan ere, baserriko andreak lkerri esan bezala: «Batzuetan txorimaloarekin hitz egiten dut. Bai. Ozen mintzaten gara biok. Txorimalo hau oso entzule ona da, eta batzuetan entzun ez ezik hitz egin ere egiten du» (32. or.). Eta bien bitartean irakurleak ikusi ahal izango du lkerren bizitzaren inguruan ere badirela beste lagun, pertsonaia, batzuk; horien artean Maider, beti laguntzeko prest duen lankidea, «haren edertasunak aztoratu» egiten bazuen ere.

Zabalak komunikazio faltaren gaia planteatzen du ipuin honetan, lotsatia den haurrarena, ez dakiena oso ongi nola jokatu: «Kanpalekuan oso deseroso sentitu nintzen hasieratik. Zer esan eta zer egin ez jakiteaz gain, beste zalantza asko pilatu zitzaizkidan: zer talderekin lo egin, noren ondoan eseri otordueta, noiz aldatu arropa...» (44. or.); eta egoera horri buelta emateko, guztiz lagungarria gertatuko zaio Maiderren adiskidetasuna, neskaren eskaintza. Horrela, Maiderren laguntzari esker, lker gero eta ausartuago izango da, eta adiskidetasun hori kariño edo maitasun bilakatu azkenean (bederatzi baino hamalau urteko haur protagonista baten kasuan egokiago izan daitekeena).

Liburuak, beraz, adiskidetasunak, konfiantza, bakardadeaz ari da, eta gaia eta idazkeraren tonu hori ederki islatzen da Maite Gurrutxagaren irudietan. Ilustrazio lan gutxi egin arren, bere estilo propioa azaltzen digun irudigile honen lanetan protagonistaren tristura, bakardadea, paisaiaren aurrean txikitasuna, baina baita konplizitatea, desioa eta iradokizunak ageri zaizkigu; irakurleak testutik haratago, irudian ageri denetik haratagoko irakurketarekin disfruta dezan. Izatez, *Zabaleko txorimaloa*, irakurri, ikusi, gogoeta eginaraziko digun istorio bitxi eta ederra baitugu.

Xabier Etxaniz Erle

14 +



### Azken garaipena

IBAN ZALDUA

Ilustratzailea: JULEN RIBAS  
Ikastolen Elkarte, Zamudio, 2011

#### Beste generoak

Gai konplexua da gazteen irakurzaletasunarena. Liburuek zergatik motibatzen dituzte gutxiago gazteak? Zer gomendatu eta zer estrategia erabili irakurle nerabearekin? Liburu guztien artean, zein da egokia edo gomendagarria irakurtzeko ohitura gutxitzen ari den adin-tarte horretan?

Gazteak, beste edozein irakurle bezala, kalitatezko liburuak nahi izaten ditu, eta puntu hori ere korapilatsua gertatzen da, ezen zer ulertzen dugu kalitateaz ari garela? Besterik gabe, asmatzeko modu bat izan daiteke gazteen gustu eta interesetatik gertu egon daitezkeen istorioak helaraztea.

Aukeraketarekin asmatzeko, bitartekari lanak egiten ditugunok ikasi behar dugu, batetik, gai edo generoei dagokienez, liburu mota ezberdinak eskaintzen, euren bizipen pertsonaletatik gertu dauden istorioak bilatzen. Eta, bestetik, literatura aldetik, bizkorgarriak diren obrak eskura jartzen, hazibidean dauden irakurzaleentzat erronka edo desafioa izango direnak.

Irakurketa berbabide dugunean, itxura batean, genero guztiek dute balio bera. Alabaina, eguneroko praktikan, narrazioak izaten du garrantzirik

handiena, nahiz eta komikiak eta aldizkariak ere badiren, irakurketara hurbiltzeko zeresan handia izan dezaketenak eta gai ugari jorratzen dituztenak (musika, zinema, zientzia-fikzioa, abentura, umorea...). Ate guztiak eraman gaitzakete irakurketaren mundura.

Euskal liburugintzan, nabarmen ahul dagoen generoa dugu komikiarena. Euskal komikia badela baieztatzea, urtean pare bat edo hiru ale argitaratzen direnean, larregi esatea litzateke. Horregatik, egiatik gertuago ginatke esango bagenu komikiak egin nahi dituzten euskal komikigileak badirela, baina apenas dutela aukerarik euren lanak Euskal Herrian argitaratzeko.

Horregatik, pozgarria da Ikastolen Elkartearen eskutik dagoen konpromisoa sikiera urtean komiki-ale pare bat kaleratzeko. Horregatik, pozgarria da *Xabiroi* euskarazko komiki-aldizkariak urtean hirutan irautea. Eta hori, hain zuzen ere, euskal liburugintzaren sustatzaile nagusiek komikiari begiratzen ez dioten bitartean...

Sarrera luze honek aukera ematen digu gazteentzako, eta baita helduentzako ere, ezin aproposagoa den komiki berri bat aurkezteko, eskarmentu zabalaren Iban Zaldua idazleak sortutako kontakizun bati kasu egiteko. Zientzia-fikziozko istorio beltz bikaina sortu dute elkarlanean aipatutako idazleak eta Julen Ribas marrazkilaria arrasatearrak.


Asmatu eta berrasmatu du Iban Zalduak Philip K. Dick zientzia-fikziozko egile ezagunaren eragina duen kontakizun hau, non irudikatzen den naziek Bigarren Mundu Gerra irabazi balute etorriko litzaiukeen gizartea. Gidoi-lana sendoa eta landua dugu, egileak atmosfera berezi eta paisaia berriak asmatzeko duen trebeziari esker. Harrigarria da pertsonaiek hartzen duten pisua eta sinesgarritasuna. Izan ere, istorioko emakumeak zein gizonak oso gertukoak egingo zaizkigu, eta 2.052 urtean kokatuta egon arren, oso etorkizun posiblea iruditzen zaigu aurkeztutako panorama. Irakurleak ez du oztoporik Sigrid tenientearen arazoak ulertzeko, idazleak dagoeneko bere liburuetan berezko dituen harreman pertsonal gatazkatsuen osagai interesgarria erabiltzen duenean. Eguneroko bizitzan aurrera egitea amets duten epikariek gabeko heroi galduek, euren errealismogatik, egonezina sortzen dute. Kontakizunak erakusten digu gidoiaren atzean idazle sena duen

egile bat dugula, Zalduak narratzaile bereziko indarra duela, komiki-hizkuntza ere ondo menperatzen duela erakusten digun moduan.

Ribasek egin duen lana mundiala da; istorioan murgildu, eta marrazkien bitartez, komikiari erritmo bizia ematea lortu du, etorkizuneko giroa xehetasun handiz islatu du. «Linea argia» delakoan koka daitekeen estiloan izugarri ona den lan bat erakusten digu. Haurren mundutik gertuago zeuden *Numenak* istorio haien aldean, harago joan da Ribas, garatuagoa den marrazki lan indartsua eskaintzen baitigu oraino honetan Ribasek.

Komikiaren oraina baikorragoa da *Azken garaipena* bezalako liburuekin. Bi egileek, Ribas eta Zalduak, ziurtatu dute etorkizuna egon, egon daitekeela, bien talentuak elkartu eta adostasuna eta lankidetzaren bikain erakutsi baitute. Komiki biribila da zentzu guztietan, edizioan ere bai, luxuzkoa den aldetik. Bien lanari esker, irakurlea harrapatu egingo dute, gogoan iltzatuta geratuko zaion komikia delako.

Asun Agiriano



**Desio izeneko tren batean**  
IÑAKI SERRANO LASA  
*Elkar, Donostia, 2011*

### Bidaia bera helburu

Iñaki Serranoren lehen liburu honetan bi protagonista nagusi daude. Jon eta Iker. Lehenak kontakizun digu nola izan duen bat-batean lagunaren heriotzaren berri, eta hileta biharamunean, etxean, kutxatxo bat jaso duela lagunak, hil aurretik, bidalia.

Kutxa horretan, beste gauza batzuen artean, bien artean eginiko bidaiaren egunerokoa aurkitzen du Jonek, eta, hain zuzen, eguneroko hori da liburu hau; 1996ko abuztuaren lagun biek Europar zehar, InterRail bidez, eginiko bidaiaren lehenengo egunetik, Hendaia-ko tren geltokian Parisera tren hartzen duten unetik, azken egunear gurasoei «salbatzera» etortzeko esaten dieten arte, Jonek eta Ikerrek Europa osoa zeharkatuko dute 30 egunear.


Iker dugu abentura honen narratzailea, eta egunerokoa oharrez beterik ageri da; 10. egunear, esaterako, goizeko 8:30ean dugu lehen apuntea, 9:00etan beste bat, 9:30ean hirugarrena, hamasei minutu geroago, laugarrena eta arratsaldeko 4:00etan, azkena. Eta kontakizunari erreparatuta, hasieran, hotelean hartu duten gosari eskasa komentatzen du: ondoren, hoteleko kontua ordaintzen ari direla nola ikusten duten jendea

jangelara sartzen (eta beraiek jan dutena «ongi-  
-etorri detailtxoa» izango ote zen); ondoren,  
gosari oparoaren berri ematen zaigu eta nola,  
kutxazainera joandakoan, konturatu diren diru  
kalkuluak oso gaizki eginak zituztela eta guztiz  
garestia zela, eta ez merkea; guztia Norvegiar.  
Dirurik ez gastatzea erabakitzen dute berehala,  
eta azkenik, arratsaldeko 4:00etan, herrialde  
garesti horretatik irten bitartean nola pasatzen  
duten arratsaldea liburutegi batean «beste ezertan  
ere xentimorik ez gastatzeko». Eta horixe dugu  
liburu honen narrazioa; zatikako narrazioa edo  
gertakari, anekdota, pentsamendu edo ateraldi  
laburrez beterikoa. Horrek, batzuetan, erritmo  
bizia eta umoresua ematen dio istorioari: «14:00  
Tiroleko jantzi eta ohituren museoa bisitatu dugu.  
15:00 Tiroleko arte museoa bisitatu dugu. 16:00  
Miniaturen museoa bisitatu dugu. 17:00 Museo  
olimpikoa bisitatu dugu. 18:00 Beste museo  
bat. 19:00 Beste bat.» (72. or.). Gure bikoteak  
museoak bisitatzen ditu «Innsbruck card» txartel  
garestia (baina erakarpen kulturalak eta museoak  
ikusteko aukera ematen duena) amortizatzearen.  
Irakurleak, horretan, beste kasu askotan bezala,  
irribarrea izango du espainetan Jon eta Ikerren  
egoera imajinatuz.

Baina, zatikako narratzeko modu horrek,  
bestalde, gertakari eta kontakizun guztietan oso  
azaletik pasatu izanaren sentipena sorrarazten  
dio irakurleari, eta horrek, nire ustez, argumentua  
pobretzea dakar. Arin irakurtzen da, baina jakinik  
irakurketa prozesu sortzailea dela eta irakurleak  
hutsuneak osatu behar dituela, oraingo honetan,  
hutsuneak oso handiak direla ematen du.

*Desio izeneko tren batean*, aurretik aipaturiko  
eragozpen (batzuen ustez bertute izan daitekeen-  
na) hori izanik ere, garai baten eta gazte gizarte  
baten isla ere bada. Mugimendua, bidaia bera  
(dibertsioa eta ligatzeko asmoarekin batera)  
helburutzat duen bidaia baten kronika.

Xabier Etxaniz Erle



### **Lehoien dantza. Grezia: Jolasa eta odola.**

FERNANDO MORILLO

Ilustratzailea: IÑAKI G. HOLGADO

Elkar, Donostia, 2011

#### **Grezia zaharrean barrena**

«Denboraren eta espazioaren hesiak gaindituz,  
gure lagunek bidaia fantastikoak egingo dituzten  
gizateriaren historiaren aldi eta leku ezberdi-  
netara, ordenagailu eta kristalezko kubo baten  
laguntzaz.»; horrela hasten da *Multibidaiariak*  
sail honetako azalpena liburuararen atzeko azalean.  
Alegia, teknologia berrien bidez gaur egungo  
errealitatetik beste garai eta leku batera bidaiatze-  
ko aukera izango dugu, edo izango dute—hobeto  
esanda— bilduma honetako protagonistek.

Fernando Morillo idazle ezaguna da gazteen  
artean eta bere liburuetan gazteen interesei  
erantzuten saiatzen da. Oraingoan, berriz,  
nerabzaroko kontuez aritu beharrean abentura  
eta historia batu ditu gazteentzako irakurgai  
bizietan. Anttonen eta Rakelen artean denboran  
eta espazioan zehar bidaiatzeko modua asmatu  
dute, eta Anttonek probatu egin nahi du. Horrela,  
Grezia zaharrera, Termopiletako guda garaira hain  
zuzen, bidaiatuko du Anttonek, baina arazo batzuk  
tarteko, ezin izango da itzuli. Anttonen anaia eta  
beste bi lagun abituko dira orduan haren bila.

Bi garai eta bi espazio ezberdinetan kokatzen da  
argumentua. K. a. 480. urtean Grezian, eta gaur  
egun hemen; eta Antton, Urki, Olain eta Harriet  
Grezian espartarrekin eta pertsiarrekin dauden  
bitartean, Rakel, hemendik, haiek guztiak ekartzen  
saiatuko da. Baina, Morillok, historia eta abentu-  
razko liburu honi misterio bat gehitu dio. Anttonen  
bila ari den teknologia enpresako jendea (*matoiak*,  
esan beharko genuke), hura harrapatu eta beraiek  
bakarrik komertzializatu ahal izateko asmakizuna.  
Elementu horiez guztiez gain, kontuan izan behar  
dugu zein unetara bidaiatu duten gure gazteek:  
Termopiletako gudara; Leonidas erregeak bere 300  
soldaduekin batera milaka eta milaka soldaduko  
gudaroste osoari aurre egin zion borrokara.

Abenturak, ikusi ahal izan den bezala, nagusi  
dira obra honetan. Greziaren geroa erabakiko zuen  
gera, Anttonen bila ari diren lagunak, beraien  
atzetik doazen *matoiak*. . . irakurlea harrapatuta  
dago ekintzen joan-etorrian; eta, hain zuzen,  
horixe da Morillok erabili duena Grezia zaharri  
buruz hainbat eta hainbat azalpen emateko no-  
belan zehar. Ageri diren pertsonaiei buruz, haien  
kulturaz, antolaketa edo horixe litzateke, nire ustez,  
liburu honen ezaugarrietako bat. Abenturazko  
istorioa Historian; edo, beste modu batean esanda,  
Historia ezagutzeko abenturazko liburua.

Nobelaren egiturak —45 kapitulu labor— eta  
narrazioarenak —elkarrizketetan oinarritua, neurri  
handi batean— irakurketa arina bilatzen dute.  
Eta onartu behar dugu erraz irakurtzen den obra  
dugula; arin, ekintza eta elkarrizketa ugari ditu,  
eta behin eta berriro —kapituluetako egiturari  
esker— lekuz eta garaiz aldatzen gaituena. Alde  
horretatik, egileak ederki lortu du, ene ustez,  
literaturak entretenitzeko duen funtzioa; baina,  
gainera, kasu horretan, entretenitu eta une atse-  
gina bilatzeaz gain, nago idazleak hezi ere egin  
nahi duela, beste denbora eta espazio baten berri  
azaldu, Historiari hurbildu, lehendik ere muga  
edo zalantza esparru batean zegoen literatura  
-produktzioa —gazte literatura— irakaskuntzaren  
eta atseginaren esparruetara eramateko.

Xabier Etxaniz Erle

**Heriotzak**


Josu Waliño

Elkar, Donostia, 2011

**Plater gazi-gozoak bezala**

*Izu-taupadak* sailean argitaratu da Josu Waliñoik gazteentzat idatzitako lehen liburua, eta egia da gaia heriotzari buruzkoa dela: heriotzaren inguruko istorioak, Herio protagonista duten kontakizunak... baina, era berean, egia da istorioek ez dutela beldur handirik ematen (baina protagonista horrekin ezin *Bizi-taupadak* barruan kokatu istorioak).

10 kapitulutan banaturik dagoen liburu hau kontakizunez, istorioz osaturiko nobela bat dela esan dezakegu. Heriotzaren inguruko istorioak osatua da, eta horretarako, nahikoa da aurkibideari erreparatzea (*Herioren bisita, Heriotzarik gabeko istorio bat, Heriotzaren balioa, Heriotzari ihesi...*) horretaz konturatzeko. Josu Waliñoik ospitaleko ohean gaixo dagoen Josu narratzailea darabil liburuko kontakizun guztiei batasuna emateko, baina baita hura protagonista nagusia—Heriorekin batera— izan dadin; hasieratik bertatik, liburuko lehen esaldietatik, ikusi ahal dugun bezala: «Heriotza gelan sartu denean esna nago. Gauetan lo egitea kosta egiten zait, egun osoa ohean pasatu ondoren ez baitut logalerik izaten. Ospitaleko nire gela arakutzen pasatzen dut denbora». Josu eta



Herioren arteko lehen enkontru horretan bertan ezarriko dira liburuaren, eta protagonisten, errege-lak. Herioik Josu eraman nahi du; hark, ordea, ihes egin nahi dio, eta Bagdadeko morroiaren istorioa—gure artean Atxagak *Henry Bengoa Inventarium* ezagunean hainbatetan errezitatua— kontatzen dio guztiz eraldaturik.

Herioren eta Josuren arteko jolas horretan, bizi-

tza bera jokoan dagoen jolas horretan, bestelako protagonista batzuk ere agertuko dira: ospitaleko gelakidea, lagunak... eta haiekin batera ipuinak, istorioak, anekdotak, kontakizunak heriotzaren inguruan; Ecok erreibindikatzen zuen postmodernismoaren hainbat ezaugarri (intertestualitatea, esaterako) nabarmenak dira. Irakurleak, horrela, istorio baten barnean hainbat istorio txiki dastatzeko aukera izango du; plater txikiek osaturiko jatordua egingo balu bezala, irakurleak hainbat estilo eta tonutako narrazioez gozatu ahal izango du. Izan ere, Josu Waliñoik eskaintako istorioen artean—hainbat sari irabazi dituzten ipuinak barne— askotariko gaiak aurki ditzakegu; Bagdadeko morroiak, esaterako, heriotzaren bisita eskatuko du militarrek duten ziega baretik; Hargin andaluzak, Hernanin jasandakoak jasan ondoren, hainbat urteren buruan torero itzultzean Euskal Herrira, harri eta zur utziko du Txirrita adar-jolea; baina horien ondoan, eguneroko trena hartzen duen suizidaren kontakizuna ere aurki dezakegu edo abusu gehiago jasan ezinik aitari «Poliki. Astiro. Eta... klak. Marrubiak biltzeko labana sartu zion» neskarena.

Istorio gordinak dira asko, gure eguneroko bizitzan girotuak eta beste garai edo toki batekoak, baina guztietan bada kontakizunak irakurleak harrapatzeko asmoa.

Xabier Etxaniz Erle

**BEHINOLA** aldizkariaren harpidetza orria.

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bete ondorengo fitxa.

Izen-deiturak:.....

Helbidea:.....

Herria: ..... Posta-kodea:.....

**BEHINOLA** aldizkariaren urteko kuota (20 €). 2 zenbaki urtean.

Euskadiko Kutzaren honako kontu-korrontean sartu:

3035 0242 68 242 0 00247 I

eta bidali fitxa ordainketa-agiriarekin batera Galtzagorri elkartera.

**Galtzagorri elkartea. Zemoria, 25, behea. 20013 Donostia. Tel.: 943 471 487**